

TESTUA. BIZKAIA ETA GIPUZKOAN KONTZERTU EKONOMIKOAK
EZEZTATZEKO LEGE-DEKRETUA (1937-06-23)

Espainian ekonomia arloan indarrean dagoen sistema itunduak pribilegio nabarmena du erregimen arruntari lotutako gainerako lurralde nazionalarekiko, ez probintzia horietako udalek arlo horretan duten autonomia zabalagatik bakarrik, baizik eta probintzia horietako zergapekoak karga publikoak jaisteko egiten duten ahalegin txikiagoagatik (...).

Forua mesedegarri izan zuten askok botere publikoaren eskuzabaltasuna ahazturik, Araban eta Bizkaian, armak hartu zituzten uztailaren 17an abiarazitako Mugimendu Askatzailearen aurka, eta traizioz erantzun zioten salbuespenezko eskuzabaltasun hari (...).

Zerga eta administrazio erregimenaren berezitasunak bere sentimendu nazionala eta Aberriaren patu komunarekiko atxikipenaren suhartasuna gero eta gehiago goraipatzeko balio izan du probintzia batzuetan, hala nola Gipuzkoa txit leialean. Beste batzuetan, aldiz, Espainiaren aurkako politika guztiz baldarra egiteko balio izan du; horiek horrela (...), amaiera eman behar zaio kalte larriak eragiteko tresna gisa erabili zuten sistema horri. Gogoeta beren arabera, Bizkaia probintzian gaur egun indarrean dagoen sistemak jarraitu egin behar du (...).

Horren kariaz, honako hau xedatzen dut:

Lehen artikulua. Datorren uztailaren batetik aurrera, Estatuko kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta berezi guztien kudeaketa eta bilketa indarrean dagoen erregimen komunaren arabera egingo da Araba eta Bizkaia probintzietan (...).

Beraz, indargabetuta geratuko da, lehen adierazitako datatik aurrera, haien aldundiekin itundutako eta gaur egun indarrean zegoen ekonomia arloko erregimena.

Madriden, 1937ko ekainaren 23an.
Francisco Franco

Boletín Oficial del Estado, 1937ko ekainaren 24koa.